

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko urriak 29 • 181. zka.

Kurtzebarri eskola:

Ortu biologikoa praktikara

Ilargi lantegia lehen eta orain ■ Produktu erregionalen I.go feria ■ Manu Altube




Aldibi Autoak, S.A

Zigorrola, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 71 20 02 • Faxa: 79 65 65

ALDIBI, GEROARI AURRE HARTZEN



Hemen zure amets guztiak egon daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.A.



Hyundai

Musakola Autoak, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A.




Chrysler

Co-Car, S.A.



Nissan

Musakola Autoak, S.A.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

OPEL

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Kotxe marka guztien konponketak

Zerbitzu guztiak



Basabe Poligonoa, A-1-3
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65
ARETXABALETA




Produktu biologikoak ezagutzen dituzu?

Karlos Berezibar

(Langilea)

Bai, sustantzia kimikorik erabili gabeko produktuak dira. San Migeletako ferian ikusi nituen eta hainbat dendetan ere badaude. Erosi izan ditut proba egiteko, baina berdintsuak direla uste dut.



Lutxi Garcia

(Langilea)

Gutxigorabehera badakit zer diren. Produktu naturalak, sanoak, produktu artifizialak erabili bakoak.

Ez diot garrantzirik ematen biologikoa den edo ez, dendetan egoten diren barazkiak erosten ditut.



Karmen Unanue

(Jubilatua)


Iazko San Migeletako ferian erosi nuen, baina normalean ez diot jaramonik egiten biologikoa den edo ez. Normalean bertako barazkiak erosten ditut. Hemen goak gustu edarragoa izaten dute, porruak, tomateak...



Txomin Torres

(Langilea)

Bueno, nik dakidanaren arabera produktu naturalak dira, ez daukate produktu artifizialik. Ez dut oraindik produktu biologikorik erosi, planteatu ere ez dut egin.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Txakur-kakak trenbidean

Sari joaten naiz trenbidetik, Aretxabaletatik Eskoriatzara paseatzeko asmotan.

Coprezitik aurrerako bidean, kontuz eta begirada lurretik jaso gabe joan behar izaten dut, txakur-kaka zapaltzeko arriskua haundia baita, horrez gain ikuspegia ez da batere atsegina.

Lerro hauen bidez nire egonezina azaldu nahi dut egoera honengatik eta guztioi erreflexiorako bide eman, batez ere, txakurren jabeei, neurri bat har dezaten, esate baterako, oinezkoak ibili behar duten kaminotik horrelakorik ez agertzea.

Udaletxeari ere luzatzen diot nire kexa, berak ere zerbait pentsatu eta egin dezan.

Gimnasia klaseen inguruan...

Orain aste batzuk udaletxera bialdutako komunikatuagatik jasotako erantzun desegokia dela-eta, herritarroi zuzendutako eskutitz hau idatzi dugu. Badirudi, herritarrok, zergak ordaintzeko eta botuak emateko bakarrik gaudela, gero ordezkartuko gaituzten alderdien aurrean. Kiroletxera joaten garenek ez al daukagu bertako monitoreekin gustora egoteko aukera? Ez gaude kirol teknikari berriaren aurka, baina gustatuko litzaiguke Jose Luis Erañak gure gimnasiako maixua izaten jarraitzeko aukera izatea. Bere jarrera ezin hobea izan da, dinamikoa eta askotan orduz kanpoko dedikazioaz, konfiantza eta lanerako gogoia eragin du gimnasiako talde desberdinetan.

E. I.


Bere formakuntza akademikoa eta trebetasun maila garbi isladatu dira, gimnasiako taldeek eta pertsonak izan duten emaitzetan.

GIMNASIAKO KLASETAKO PARTAIDEAK.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabeitia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Gero eta odol emale gazteagoak

□ Azken txandan 110 lagunek eman dute odola osasun zentruan



Emakumeek urtean hiru aldiz eman dezakete odola, gizonzkoek lau aldiz.

Arabako odol bankuko unitate mugikorrekokoak Aretxabaletako osasun zentruan izan dira urriko hiru egunetan. Urtean birritan etortzen dira eta azken txanda honetan 110 odol emale pasatu da bertatik odola ematera, horietatik zazpi berriak. Isabel Viloria unitateko arduradunaren esanetan gero eta jende gazteagoa animatzen da odola ematera.

Zer egiten da odolarekin?

Dana dala, emaleak gero eta gehiago izan arren, "jasotzen den odola ez da nahikoa". Badaude egoera hau eragiten duten oztopo bi. Kontutan izan behar da, odola hiru zatitan banatzen dela: plasma, globulu gorriak eta plaketak. Azken hauek 5 eguneko iraupena dute, globulu gorriek 35 egunetakoa eta plasmak, berriz, urtebetekoa. Hori horrela izanik, lehenengo bi osagaiak oso iraupen txikia dute, honek odola egunero atera beharra eskatzen du. Pertsona bakoitzak 400

zm3tako odol kopurua ematen du. Gizonzkoek, gehienez, hiru hilabete behin eman dezakete, emakumezkoek, oster, lau hilabete behin.

Isabel Viloriak jasotako odola ez dela alperrik galtzen argitu du: "jasotzen den odol guztia erabiltzen da. Balioa galdu aurretik, Galdakaoko transfusio zentrura bidaltzen da eta bertatik banatu".

Odolak erakusten dituen oztopoak kontutan hartuta, "beharrezkoa da jendea sentsibilizatu eta odola ematera animatzea". Viloriaren esanetan jendea gero eta solidarioagoa bada ere, jende berria komeni da beti betikoak ez erabiltzeko. "Kontutan izan, gutako baten bizia odol emanaldi batek erabaki dezakeela".

Odola emateko 18 urtetik 65era bitartean eduki behar da. Honekin batera, 50 kilotik gora pisatzea, osasun ona izatea eta hiesa edo hepatitisisa kutsatzea errazten duen iharduerarik ez burutu izana eskatzen da.

Kepa Urria Puerto Santamarian

Hilabete inguru Basauriko espetxean igaro ondoren, oster ere Cadizeko Puerto Santamaria espetxean dago Kepa Urria. Gogoratu irailaren 10ean Basauriko espetxera ekarri zutela, ustez Kepa torturatu zuten sei guardia zibilen aurkako epaiketa egiteko. Sententzia oraindik ez da jakitera eman, baina egun batzuk barru izango da honen berririk. Epaietarako iraun duen bitartean Basauriko espetxean egon da Kepa. Cadizerako itzulera sei egunetakoa izan da, tartean Zaragozan eta Valentzian ere geldituz.

Zoritxarreko istripua Duranan

Martizenean zoritxarreko istripua gertatu zen Durana kalean. 70 urteko Nikasi Antxia hil egin zen kamioiak harrapatu eta jasandako lesioen ondorioz. Ertzantzaren adierazpenetan istripua eguerdiko 12ak inguruan gertatu zen. Itxura denez, bidea gurutzatzen ari zela jo zuen kamioiak eta honek emandako kolpearen ondorioz Nikasi berehala hil zen. Jarraian Zumarragako eritexera eraman zuten gorpuari autopsia egiteko.

Okindegia - Gozetegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelenetan itxita

ESKORIATZA

Akordeoi orkestrak lehen saria eskuratu zuen Irun Hiria sarian

Luis Mari Elkorobarrutiak zuzentzen duen akordeoi orkestrak lehen saria eskuratu zuen urriaren 10, 11 eta 12an burutu zen Irun Hiria sarian. Aurten bigarren aldiz hartu dute parte txapelketa honetan eta baita bigarren urtez lehen saria eskuratu ere.



Luis Mari Elkorobarrutiak zuzendutako orkestrak lehen saria eskuratu zuen.

Estatu mailako txapelketa honetara, Katalunia, Galizia, Madril, Kantabria eta Euskal Herriko orkestrak aurkeztu ziren. Danera hiru kategoriaz zeuden eta herriko orkestrak erdi mailako kategorian hartu zuen parte. Maila honetan ez zen bigarren eta hirugarren saririk egon. Ohorezko mailan hirugarren saria bakarrik eman zen eta bigarrena kategoriaz bazuenean.

Emaitza hauek ikusita, Luis Marik, epaimahaia exigentzia handikoa eta gogorra izan zela azpimarratu zuen. Bestalde, beraiek egindako lanak merezitako onarpena jaso zuela eta pozik azaldu zen: "Iraila hasieratik gogor entsaiatu dugu. Sakrifizio handia izan da ikasle eta baita gurasoentzat ere, baina lortutako emaitza hor dago". Epaimahaiak saria emateko orduan, taldeak ritmikoki lortutako maila eta batutearen aurrean zuten kontrola aipatu zituen.

Txapelketa zapatuan izan bazen ere, domekan azkenengo ekitaldi moduan herriko orkestrak eskainitako kontzertua grabatu zuen Euskal Telebistak. Aurki, kontzertua telebista ikusteko aukera izango da.

Orkestra biak Strasburgora

Herriko bi orkestrak Strasburgon burutuko den Nazioarteko lehiaketara aurkeztuko dira azaroaren 1, 2 eta 3an. Urriaren 31an irtengo dute Aretxabaletatik eta azaroaren 2an beraien ekitaldia eskainiko dute lehiaketan.

Txapelketa berriari aurre egiteko, gogor ari dira lanean orkestra biak. Irun Hiria sarian lortutako emaitzaren ondoren eta iaz Italian lehen saria irabazi ondoren, maila ona erakutsiko dutela espero da. Bueltan merezitako bisitaldia egingo dute Parisera eta Futuroscopara.

Zorte on!

Aretxagazetako langile berria



Rosa Mondragon aramai-oarra izango da Aretxagazetako langile berria. Rosak publicitate eta kazetaritza lanak burutuko ditu aurrerantzean gure aldizkarian. Rosa kazetaritzan lizentziatua da eta Arrasate Press eta Arrasate telebistan lan egindakoa. Batzuk ezagun izango duzue bere aurpegia, Arrasate telebistan aurkezle ibilitakoa baita.

Zinea azaroan hasiko da

Apiriletik hona zine emanaldi barik egon ondoren, azaroan, lehenengo astebukaeran zurrerik, zabalduko ditu ateak Zaraia zinemak. Udazken eta negua zintera joateko sasoirik egokiena dela eta zineko emandiek hastea pentsatu da. Aurreko urteetako eta aurtengo emaitzak ikusita zineak ez du arrakasta haundirik izan herrian. Dana dala, beste ahalegintxo bat egingo da eta zine aretoak soinu aldetik dituen akatsak zuzendu eta proiektuazko tresna konponduko da.

ORTOPEDIA ORTO + LAGUN

Gerriko edo bizkarreko minez zabiltz?
Lunbago eta ziatikarako faja elastikoak ditugu zuretako.

Zugan pentsatuz laguntzeko prest

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi,1
☎ 79 71 69

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Arrakastatsua eskualdeetako produktuen I.go erakusketa

□ Gastronomía eta folklorea batu ziren erakusketan

Plaza leporaino bete zen joan den domekan Udaleko kontsumo sailak eta kontsumitzaile bulegoak antolatutako eskualdeko produktuen I.go erakusketan.

Andaluzia, Errioxa, Extremadura, Galizia eta Euskal Herriko folkloreak eta gastronomiak bat egin zuten bertan. Eguraldia haizetsu azaldu bazen ere, giro bikaina sortu zen bertan bildutakoen artean.

Goizeko 11etan Ibarako futbol zelaian elkartu ziren Donostiatik etorritako Errioxako eta Galiziako

etxeak, Arrasateko Al Andalus eta Corazón de Encina etxeak eta herriko Loramendi dantza taldeko partaideak. Herriko kaleetatik kalejira egin ondoren, plazan batu ziren guztiak dantza saioa eskaintzeko. Plazan, batzuk eskualde hauetako dantzak ikusten zituzten bitartean, beste batzuk produktuak dastatzeko aukera aprobetxatu zuten: Galiziako pulpoa, Extremadurako pintxo morunoak, Andaluziako azeitunak... guzti hau jakina eztarria buztitzeko tragoxka batzuz lagundurik.



Andaluzia, Extremadura, Errioxa, Galizia eta Euskal Herriko dantzek eta gastronomiak bat egin zuten herriko plazan. Zein baino zein dotoreago aritu ziren. Argazkiak horren erakusgarri dira.



Kiub, Kontsumitzaileen informaziorako Udal bulegoa

Kiub deitzen da kontsumitzaileen informaziorako Udal bulegoa. Berau izan da eskualdeko produktu erregionalen I.go erakusketa antolatu duena.

Aretxabaletan 1.984. urte-tik eskaintzen du bere zerbitzua eta Gipuzkoa mailan sortu zen lehenetarikoa izan zen.

Kontsumitzaileari informazioa, aholkua eta laguntza eskaintzea du helburu, bezero eta saltzailearen arteko bitartekari lana eginez. Zerbitzua arlo desberdinetara zabaltzen da: etxebizitzak, aseguruak, kotxeak, elikagaiak... Udaleko kontsumitzaile bulegoko arduraduna Martin Garai da eta berarengana jo behar da arlo honetako informazioa jaso, kexak azaldu edo aholkularitza nahi izanez gero.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA


Astelehenean bota zen Ilargi fabrika

61 urte zutik egon ondoren astelehenean bota zen Ilargi fabrika. Eskabadorak ordu gutxi behar izan zuen eraikuntza txiki-txiki eginda uzteko. Eguerdirako lantegia botata zegoen eta honek utzitako hondakinak besterik ez ziren ageri.

Ilargi lantegia zengoen lekuan, 52 etxebizitza eraikiko dira eta dagoeneko urbanizazio proiektua eginda dago. 13 C eta 13 D moduan ezagutzen den zona honetako konstruktora Errekabarren S. L. izango da.

Konstruktoreak jakitera eman duenez, obrak datorren hilean hasiko dira eta bi urte barru bukatuta egongo dela uste da. Proiektua bi fasetan burutuko da: lehenengoan 20 etxebizitza, 32 bigarrean.

Planoan ikus daitekeen moduan, bi etxe bloke izango dira. Eraikuntzak aparkamentu ugari erakusten ditu inguruan eta jardinez osatutako plaza bat erdian.



13 C eta 13 Dko urbanizazio proiektua

Cerrajera Ilargi S.L.

Gerra zibilarekin batera, 1936. urteko urtarrilean sortu zen "Cerrajera Ilargi S.L.". Lehenengo urtean 14 lagunekin hasi zen lanean. 50. hamarkadatik aurrera langilegoa

gehitu eta 110 langile izatera ere iritsi zen. Urte luze hauetan sarraildegia eta fundizio tailerrak izan ditu. Iaz lantegia Legutianora aldatu zen, eta bertan jarraitzen du "Ilargi S.A. laboral" izenarekin.



Ilargi lantegia bota zuteneko momentua





Lubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



ARLUTZ

MITARTE, 16 - ARETXABALETA - TFNOA.: 79 32 34

EUSKAL HERRIKO FAUNA ETA FLORA (3)

Erika, hots, iñarra

Isurialde kantauriarrean ageri den berezko sastrakadirik ugariena dugu erikazeoen taldea. Hainbat euskal izen jaso du ondorioz landare multzo honek, esate baterako: *Txilarra*, *Aiñarra*, *Iñarra*,... Gazteleraz *brezo* deritzen.

Metrobeteko altuerara heltzen ez diren zuhaixka hauek beti berde ditugu eta uztailetik urriraino kolore biziko loreak erakusten dizkigute. Erleek oso maite dituzte eta gure kulturaren ere oso estimatuak izan dira beti, izan ere, sendabelar bezala eta sua egiteko asko irabili izan da. Adaxka ugari, egur gogorra eta sustrai sendoak dituzte.

Zoru hartsu eta azidotan aurkituko ditugu bereziki, berauek baitira elikagai urriko lekuetara hobekien moldatzen diren landareak. Orain aipatuko ditudan hiru adibide hauetaz gain, badago inguruotan talde honetako beste espezierik ere, hala nola, *Erica vagans*, *Erica tetralix* edota *Vaccinium myrtillus* (Ahabia /Arándano).

Ainarra edo Txilar arrunta (*Calluna vulgaris*):

Metro erdi eskas neurtzen duen zuhaixka honek zurtoin kuadrangeluar hostotsua dauka, hostoak lantzeolatuak izanik. Bestalde, zintzilik ageri ditu multzokaturiko lore arrox-agiriak. Inguruko espezie arruntena dugu berau eta hagin sendabelarren munduan erabiliena ere bai.

Aiñarra edo txilar morea (*Erica cinerea*):

15etik 75 zm-rainoko luzera har dezaketen zurtoinek zuhaixka biribildua eratzen dute, non hosto azikulatu berdeen artean lore purpura edo fuksia biziak gailentzen diren.



Ainarra kantauriarra

Edozein tokitan aurki daiteke, bai baso irekietan, bai toki harritsueta eta baita urek atzera egiten duten lekuetan ere. Urkulu aldean sarri ikusten da.

Ainarra edo Txilar kantauriarra (*Daboecia cantabrica*):

Metro erditik gorako zurtoinak normalean lurrean etzanda izaten ditu espezie berri honek. Lore gorrixkak erakusten ditu eta hostoek alde zurixka gorde nahi digute azpian. Honek ere maite ditu toki harritsuak.

Mikel Arroiabe

**T
X
I
L
A
R
R
A**



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

EXTRA

Deba Garaiko kazeta

**Astearte, ostegun
eta larunbatero
kioskoetan
salgai.**

Nafarroa etorbidea, 23
218 postakutxatila
Tel: 79 82 68
Fax: 79 43 03

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



Manu Altube

“Suhiltzaile lanak arriskutsu fama dauka, baina arrisku hori norberak neurtzen du”

Orain bost urte Oñatiko Zubillagako parkean hasi zen Manu suhiltzaile lanak egiten. Kasualitatez ekin zela dio, “lagun bat aurkeztu zen eta ni ere aurkeztera animatu nintzen”. Hortik aurrerakoa oposaketa pasatzea izan zen. Lanbide honen gorabeherak gertutik ezagutzeko aukera eskaini digu Manuk.

• Manu, nola sartu zinen suhiltzaile?


Kasualitatea izan zen. Lagun batek suhiltzaile oposaketetara aurkezteko asmoa zuela esan zidan. Niri ere gustoko lana eta polita iruditu zitzaidan eta aurkeztea pentsatu nuen. Oposaketa luzea izan zen: aurre proba bat, hiru hilabetetako ikastaro praktikoa, hiru hilabetetako parkeko lana eta bukatzeko beste froga bat pasatu behar izan genuen. Gu sartu ginen garaian ofizio bat izatea eskatzen zen, eta hori ere gainditu beharreko froga izan zen.

• Nola betetzen da zuein egun arrunt bat parkean?

Interbentziorik ez dagoenean, eguneroko lana antolatuta daukagu. Goizean lehenengo kamioiak atera, emisorak probatu eta materialarekin praktikak egiten ditugu. Ondoren, parkeko mantenimendu lana dator, bakoitzaren ofizioaren arabera normalaen: hainbat konponketa, garbitasuna, margoketa... Azkenengo bi orduetan mantenimenduko gimnasia egiten dugu. Parkeko mantenimendua gure ardurapean dago. Horregatik sartzerakoan ofizioa izatea eskatzen da.

• Suhiltzaile lana arriskutsua dela esango zenuke?

Arriskutsu fama dauka, baina hori



“Parkean eguneroko lana antolatuta daukagu”

norberak neurtzen du. Arriskutsua baino gehiago gogorra edo latza dela esango nuke, istripuak, suteak...une latzak dira.

• Zein motako interbentzioak egiten dituzue?

Sute desberdinak: etxeak, base-riak, kontenedoreak... Basoetako suteak, berriz, ez dira gure

kompetentzia. Honez gain, istripuak eta erreskate desberdinak: norbait igogailuan harrapatuta gelditu dela, material batek jausteko arriskua duela, etxeko giltzak ahaztuta utzi eta etxe barruan arriskua dagoenean, lapikoa sutan... denetarik.

• Emergentzia baten aurrean zerbitzua nola antolatuta dago?

Donostian zentrala dago eta bost parke Gipuzkoan: Zubillaga, Ordizia, Irun, Zarautz eta Tolosan. Bost parke hauetan jende profesionala dago lanean. Bestalde, Legazpi, Azpeiti eta Eibarren bolondresak daude. Zubillagako parkean esaterako, launako sei talde gara guztira. Parkean beti lau lagun egoten gara eta emergentzietara laurok irretzen dugu. Deba Garaia da gure lan area.

Beste parke batzutan turnoko lagun bi bakarrik daude. Kopuru txikia da eta bolondresekin batera eskaintzen dute zerbitzua. Langilegoa gehitzeko hainbat eskabide egin dugu baina ez digute kasurik egin.

• Guzti hau ikusita gero, zer egin behar da zuekin harremanetan jartzeko?

088 telefono zenbakira deitzea da egokiena. Bertatik Donostiako zentralera pasatzen dute abizua eta handik guri.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABAleta

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
ARETXABAleta

Ortu biologikoa praktikara

Barazkien prosezua gertuagotik bizi nahi izan dute Kurtzebarri eskolan

Teoria hutsetik atera eta “in situ” bizi nahi izan dute Kurtzebarri eskolan ortuko lana. Maiatzean ortu biologikoa sortu eta jarraipena eman diote. Esperientzia berria, gainera, gatzetxoekin jarri da martxan, LHko lehen eta bigarren mailako neska-mutilekin.

Ortua edo baratza deitzen diogu barazki eta fruita arbolak landatzeko erabiltzen den lur sailari. Han eta hemen erreka bazterretan, zelaietan eta baserri inguruetan topatu ditzakegu ortuak. Ortuko produktua eta ortua bera ere ezagutzen dugula esan daiteke. Ortuko lana nolakoa den ezagutzea, berriz, gatzagoa da.

Gure elikaduran horren garrantzi haundia duten barazkiak, gertuagotik ezagutu nahi izan dituzte Kurtzebarri eskolan. Nondik datozen eta zein prozesu jasaten duten ikusteko, teoria praktikara eraman dute: ortu biologikoa izan da emaitza.

Barazkien landaketa

Iazko udaberrian hasi zen gutzia. Inguruaren ezagupen atalaren barruan esperientzia berria frogatzea bururatu zitzairen LHko andereinoei. Mariasun Gutierrez eta Eva Agirre andereinoen berbetan, “gure elikaduran baratzak duen garrantzia eta barazkiak hazteko prosezua ezagutzea izan da helburua”, modu honetan ikasleari ereinketa, bilketa eta lur ongarririketa prosezuek ezagutzeko



Industrialdeko lurretan landatu dute baratza Kurtzebarri eskolakoek

**“Gure elikaduran
horren garrantzi
haundia duten
barazkiak
gertuagotik
ezagutu nahi izan
ditugu”**

aukera emanez.

Ortu inguruan esperientzia gutxi izanik, Jose Lonbiderekin (ortu biologikoan jakituna) harremanetan jarri ziren. Hau pozik azaldu zen aholkularitza lanak egin eta ortuan laguntza emateko. Honekin batera, industrialdean lur sail bat lortu ondoren, dena gertu zegoen haziak eta landareak erosi eta la-

nari ekiteko.

Maiatzean sartu zen lehenengo letxuga. Jarraian, piperrak, artoa, berenjenak, azak, tomateak, kalabazinak, gindilak, etabar., lur saila itxura batean barazkiz hornituta gelditu zen arte.

Esperientzia zoragarria

Umeek edarto pasatu dute. As- tean bi aldiz egin dute ortura irteera. Goitik behera lokatzez beteta bukatu arren, ondo baino hobeto pasatu dutela adierazi digute. “Oso gustora joan gara ortura eta gauza asko ikasi ditugu”, kontatzen zuten Amaiur Lonbide eta Julen Galianok. Emandako pausoak ere gogoan zituzten Naiara Urrutia eta Xabi Sierra 2. mailako ikasleek: “Lehenengo Jose Lonbidek lurra mugitu zuen makinaz. Ostean guk atxurra hartuta zuloak egin eta porru landara txikiak sartu genituen. Hilabete batzutan asko haunditu dira”. Porruak eta beste barazki



mordoa landu zituzten. Pena izan zen, udako oporretan jarraipenik ezin egin izatea. Irakasleak Jose Lonbiderekin batera zaindu zuten ortua udan. Hala ere, irailean klaserara bueltatzean berriro lanari ekin zioten. Ura bota, azetatik karakolak kendu, belar txarrak kendu... Jakina, guzti hau ahalik eta modu naturalenean egin dute, ortu biologikoaren baldintzak beteaz.

San Migeletan azken ekintza

Irailerako barazkiak itxura ona erakusten zutela eta, barazkiak San Migeletako ferixa biologikoan salgai jartzea pentsatu zuten. Horretarako, jakina, barazkiak atera eta garbitu beharra zegoen. "Ateratzea eta produktuak garbitzearena beste kontu bat izan zen. Denok lokatzez beteta etxeratu arren, primeran pasatu genuen".

Maiatzeko landatze prozesuak

San Migeletako ferian izan zuen amaiera. Bertan salgai jarri ziren barazkiak eta honezgero janda egongo dira ziurrenik.

Aurrera begira proiektua gauzatzeko eta sakontzeko lan asko egin beharra dagoela onartzen dute irakasleek. "Esperientzia berria izan denez, oraindik proiektua finkatzeko daukagu". Aurrerantzean egitasmo berria pedagogi ikuspuntutik gauzatu nahi dute. "Azken finean produkzioa ez da gure helburua, heziketa baino". Horretarako ingurune eskola bartzurekin jarri dira harremanetan eta ideia berriak landu dituzte: ortuko diarioa egitea, irakurketa eta idazketarekin lotura eman...

Dana dala, udazkenean sartuta gaude eta negua ere hurbil dago. Ortuko proiektuak jarraipena izango du eta neguko barazkiak aurki landatuko dituzte.

Nekazaritza biologikoa

Nekazaritza biologikoa lurra lantzeko beste modu bat da. Nekazaritza mota hau lantzeko betebeharreko baldintza bat dago: ezin da ongarri kimikorik erabili, ezta kimikoki eta sintesi bidez lortutako pestizida edo antzekorik ere.

Nekazaritza mota hau lantzen duten adituen esanetan, lurraren emankortasuna eta ingurugiroaren arteko oreka mantenduz, kalitate goreneko elikagaiak lortzen dira. Elikagaien gustoa eta zaporea nabariagoa da eta gainera kontserbatzeko epe luzeagoa dute.

Ongarria botatzerakoan, oso garrantzitsua da ongarriketa organikoa egitea: ximaur edo zatza, hondakin begetalak...

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Matikua

jatetxea

Bertako mortzilak eta
txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita
Azatza auzoa
ARETXABALETA



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Arlutz futbito txapelketako hirugarren ihardunaldia jokatuko da asteburuan

Urriari hamabi talderekin hasi zen Arlutz futbito txapelketa. Orain artean ihardunaldi bi bakarrik jokatu dira eta sailkapenean ez da abantaila nabarmentzen ageri. Peña Hugo taldea sailkapenean lehena doa 6 punturekin. Atzetik puntuazio beraz Deuntajo, Toblerone eta DDK taldeak daude. Hauen hurrengo Izotz Kemen, M.C Mañole eta Gailegoak 3 puntu dituzte. Azkenik 0 punturekin Aston Villa, Eztanda, PCC Tailandes eta Atletico Celaya daude.

Oraindik bi ihardunaldi bakarrik jokatu direnez, txapelketan ez da

talderik nabarmentzen. Txapelketa aurrera doan heinean diferentziak gero eta haundiagoak izango dira.

Datorren zapatuan hirugarren ihardunaldia jokatuko da. Hona hemen ekitaldi horretarako norgehiagokak eta ordutegia.

Hirugarren ihardunaldia

11-12	MC Mañole-Kemen
12-1	Deuntajo-Peña Hugo
1-2	DDK-Gailegoak
3-4	Toblerone 69 CM-Izotz
4-5	Eztanda-PCC Tailandes
5-6	Atletico Celaya-Aston Villa



Asier Mujika,
kirol teknikari berria

Asier Mujika, 28 urteko arrasatearra da kiroltxeko kirol teknikari berria. SHEE-IVEF hezkuntzan lizentziatua da eta gaur egun Aretxabaletan bizi da. Azken lau urte hauetan Ikastolen elkar-tearen barruan "Ikas pilota" izeneko proiektuaren arduraduna izan da, lehen bi urtetan Araban eta ondoren Bizkaiko Ikastolen elkartean. Azaroan ekingo dio lan berriari eta horretarako ilusioz dagoela adierazi digu: "lehenik eta behin herriko kirolaren egoera ezagutu beharko dut, diagnosi bat egin eta plangintza egin ahal izateko".

Fran Migel estatuko 100 onenen artean

Fran Migelek Alicanteko Torrevieja herrian jokatu zen Espainiako xake txapelketan hartu zuen parte aurreko astean. Fran Euskadiko afizionatu mailan lehen klasifikatu moduan aurkeztu zen txapelketara eta bertan Estatuko xake maixuekin batera aritu zen. Txapelketan erakutsi zuen maila

ikusita lan txukuna egin zuela azpimarratu behar da. Bederatzi puntutatik bost puntu lortu zituen. Emaitza honen ondoren, estatuko 100 xake jokalariren onenen artean dago. Oraindik maixu izatera iritsi ez bada ere, maixu handien mailan jokatzekeo abilezia duela erakutsi digu.

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

LEIBATZ
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA


Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Mitartegarai
Zatetxea

- Nekazaturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA



EGUZKIGRAF
inprimategia



Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

Azken ihardunaldian infantilek bakarrik lortu zuten garaipena



Preferenteko UDAk Anaitasuna taldearen aurka jokatu du domekan

Aurreko asteburuan burututako partiduetan UDAko jokalariek ez dute zorte onik izan. Infantil taldeak ezik, beste guztiek ezin izan zuten emaitza positiborik lortu. Santi Moralesen taldea, garaipena lortu zuen bakarra izan zen. Hurrengo ihardunaldian Urki Eibarko taldea izango dute aurrez-aurre.

UDAko preferentek Zestuarren aurka jokatu-tako partiduan, Zestuak hiru puntuak eraman zituen. Lehen gola Idigorasek sartu bazuen ere, Zestuak merezitako garaipena lortu zuen: 2-1.

Astebukaerako ihardunaldiak

Datorren domekan Anaitasuna Azpeitiako taldearen aurka neurtu beharko ditu indarrak preferente mailako UDAk. Partidua

Ibarra futbol zelaian izango da arratsaldeko 5etan. Anaitasuna talde indartsua da eta gogor ari da aurtengo denboraldian UDAk, ostera, joko ona erakutsi du etxean eta indartsu aterako da zelaira. Partidu polita ikusteko aukera izango dugu duda barik.

Gainontzeko partiduei dagokienez, Juan Jose Etxeberriaren mutilak Zumaiara abiatuko dira datorren zapatuan. Euskal ligan diharduten jubenilek, berriz, Olarizu Gasteizko taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Zapatu goizean lehen mailako kadeteek, Almenen aurka jokatu dute Ibarren eta arratsaldean, jubenilek Usurbil izango dute aurrez-aurre arratsaldeko 3,30etan.

Bukatzeko, Urola taldea izango dute aurkaria bigarren mailako kadeteek.

Esti Ramos

“Nesken futboleant maila ona eta kalitatezko futbola ikus daiteke”



Kirola betidanik gustoko izan du Esti Ramos Mondra futbol taldeko 18 urteko jokalaririk. Lehen pausoak Almeneko saskibaloitaldean eman zituen. Ondoren Aretxabaletako nesken futbol taldean hasi zen eta hau desegin zenean, Arrasateko taldean jarraitu zuen.

• Nola hasi zinen Mondra futbol taldean?

Kirola egitea betidanik gustatu izan zait. Saskibaloian jokatzeko nuen lehen eta gero Aretxabaletako nesken futbol taldea sortu zenean bertan hasi nintzen. Azken hau desegitean, kirola praktikatzeko jarraitu nahi nuen Mondrako futbol taldean hasi nintzen.

• Saskibaloian eta futboleant jokatu duzue hortaz, erraza izan da batetik bestera salto egitea?

Bai, hankekin eskuaz baino zailagoa da baloia dominatzea, baina gustatu ezker dena ikasten da. Saskibaloian jokoa azkarragoa izaten da normalean. Azkar helitzen da alde batetik bestera. Futboleant, berriz, espazio askoz ere haundiagoa da eta jokoa lasaiagoa gehienetan.

• Nesken bi taldeei daude Mondran. Zuk non jokatzeko duzu?

Bai, Mondran nesken futbol talde bi daude. Nik goiko taldean entrenatzen dut, jokatu, berriz, batzutan goikoekin eta beste batzutan beheko taldean. Goiko taldean jokoa serioagoa da eta maila ere altuagoa. Erdilari lanak egiten ditut.

• Nesken futbola nola ikusten duzu?

Nesken futboleant maila ona eta kalitatezko futbola ikus daitekeela esango nuke. Antolakuntza aldetik elkarrekin ez diote garrantzirik ematen nesken futbolari. Alde horretatik garrantzi gehiago eman beharko litzaioke.



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
79 29 26

JOSE MARI bodegaia

- < Eguneko menua
- < Bataioak
- < Jaurnartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETA



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoko


Errekabarren, 20 behe
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Pedro Balenziaga



Piszinako monitore lanetan 10 urte beteko ditu Pedro Balenziagak datorren urtean. Urte hauetan gazte txoei eta nagusiei igeri irakasten nahikoa ahalegin egin du. Igeri egitea kirolik osotuena da bere iritziz, gorputzeko mugimendu desberdinak eta arnasa lantzen baitira.

- Egunean zenbat lagun pasatzen da piszinatik?
Ikastaroak daudenean 70 bat.
- Zenbat gradutara egoten da ura?
26-27°tara.
- Zer aldatuko zenuke piszinan?
Umeez jolasteko tresna gehiago

“Igeri egitea kirolik osotuena da”

ekarriko nituzke.

- Zuk zeuk igeri egiten duzu?
Bai, crol eta braza normalean.
- Zer lantzen da igeri egitean?
Kirol osotuena da, gorputzeko mugimendu desberdinak lantzen dira, arnasa nola hartu ere ikasten da.
- Nola ikasi zenuen igeri?
Neure kontu. Aretxabaletako errekan ikasi nuen lehenengo. Gero Eibarren titulua atera nuen.
- Zein igeri mota da onena?
Bizkarrerako atzeraka igeri egitea. Lesioen arabera igeriketa mota aukeratu behar da.
- Zein adinetakoa izan da zurekin igeri ikasi duen pertsona zaharrena?
73 urtekoa.
- Orduan edozeinek ikas dezake igeri?
Bai. Orain eskoletatik etortzen dira gazteak eta denek ikasten dute.
- Gaiez gutiz aldatuz, zenbat telebista behar dira etxe batean?
Nire ustez bi.
- Fruta gustokoena?
Meloia.
- Zelako erropa jazten duzu normalean?
Kiroletako erropa.

- Pentsatu duzu sekula erretzeari uztea?
Ez, ez dut asko erretzen eta.
- Zer ikustea gustatuko litzaizuke herriko telebistan?
Herriko berriak, kirolak...
- Musika gustokoa?
Klasikoa eta erlajaziozko musika.
- Zerk ematen dizu amorrua?
Hipokriziak.
- Gaurkoan ala biharkoan ere pentsatu behar da?
Gaurkoan, eguna bukatzean biharkoan.
- Zertaz egiten duzu amets?
Lanarekin.
- Lo egiteko pixamaz edo barik?
Hotz egiten badu pixamaz bestela barik.
- Zeintzuk dira zure afizioak?
Igeriketa eta irakurketa.
- Irakurri duzun azken liburua?
“Cien años de soledad”, oso ondo dago.
- Zer du ona irakurtzeak?
Norberaren hizkerarako aberasgarria dela uste dut.
- Domu Santu egunean joango zara kanposantura?
Bai. Urtero joaten naiz.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe





H

erria goitik behera aldatzen ari zaigu. Astelehenean bota zuten herrian hain ezaguna izan den Ilargi fabrika. Etxebizitzak eraikiko dituzte bertan.

1.936. urteko urtarrilean fundatutako lantegi hau 61 urte luzetan izan dugu gure artean. Ilargi S.A. laboral izen berriarekin Legutianon jarraitzen du gaur egun.

Sorrerako bazkideak Luis Fuente sarraildegian lanean ibilitako 12 lagun izan ziren. Aurrean aipatutako fabrika itxi ostean fundatu zuten Ilargi S.L.

Candido Etxeandia Ilargiren sorrera eta amaiera ezagutu duen bakarra da gaur egun. 40 urtez Ilargiko gerentzia lanak egin ditu eta danera 60 urtez jardun du bertan lanean. Ondo baino hobeto ezagutzen du Ilargi lantegiaren historia, eskola bukatu eta 15 urte zituela Ilargiko ofizinan hasi baitzen lanean. "Ilargi 14 langilekin hasi zen martxan, 300 m²-tako pabiloian". Sarraildegia izanik, 1941. urtean beste tailer bat gehitu zitzaion, kasu honetan fundizioarena. Geroztik langilegoa gehituz joan zen eta 50-60. hamarkadan 110 lagun izatera ere iritsi zen. "Kanpotik zetorren jende gutzia hartzen zen gurean, errioxarrak eta extremenoak gehienbat" gogoratzen du Candidok.

Ilargi fundatu zenerako fabrika asko zen gure herrian: CVL, Beroa, Azbe, Iturbe fundizioa, Lezamako laminazioa, Calzados Barrutia... Batzuk martxan jarraitzen dute, baina gehienak desagertuta daude.

Candidok pena handia dauka 60 urtetan lan egin duen lantegia bota dutelako. Ez da gutxiagorako, "Lehen harria jartzen ikusi nuen eta baita azkena kentzen ere".



Informazioa: Candido Etxeandia

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

Umea



Edo zuzenago esanda "El niño" Chileko kostaldean sortzen den korronte bat da eta adituek diotenez aurten negu xelebrea ekarriko digu: ekaitzak, hurakanak, etabar. Nik ez dakit bere eragina hemen ere igarriko dugun ala ez, baina egia esan udazkena normal normal doanik ezin esan, tenperatura aldaketak eta haize bolada zakarrak benetan. Beharbada **Ilargiko lantegia** haizeak bota duela pentsatuko zuen batek baino gehiagok baina ez da horrela gertatu, etxebizitza berriak eraikitzeko bota dute. Martxa honetan laister herria ezagutu ere ez dugu egingo.

Herriko kontuekin jarraituz Atxabaltan kirol teknikari berria dugu: **Asier Mujika**. Izatez mondrauetarra da baina Aretxabaletan bizi da.

Asierrek gu forman jartzeko ardura izango du hemendik aurrera.

Lanarekin jarraituz, Aretxagazetak ere langile berria izango gu. Lasai ez da ni ordezkatzeko. **Rosa Mondragon** du izena eta aramaioarra da. Publizitate eta kazetaritza lanak egingo ditu.

Oporretan gure artean dago **Iñaxio Galdos** Indian bizi den Jesuita. Joan den zapatuan berak eman zuen 7,30etako meza. Sermoian Indiari buruz berba egin zuen, beraz sermoi exotikoa izan zela esan genezake.

Atxabaltarra eta ezaguna da gainera ale honetako gurutzegraman agertzen zaigun **pertsonaia**. Dana dala, esan daiteke nahiko aldatua agertzen dela. Beharbada batzuk ez duzue nor den asmatuko. Ez niri galdetu gero, niri ere zein den ez didate esan eta.

Joan zen domekan gure herrira bateonbat lehen aldiz etorri bazen, inpresio kuriooa jasoko zuen, kalean eta plazan zegoen jende piloaz. **Produktu erregionalen erakusketa** antolatu zen eta giro oso ona egon zen. Janari eta edari ederrak dastatzeko aukera aprobetxatuz bat baino gehiago pozik joango zen etxera, fino, albarino eta Ribeiro batzuk edan eta gero.

Nik ere furrustada edarrak entzun behar izan nituen.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Telefonoa: 79 03 10.

ETXEBIZITZA

- 160 m²-ko pabiloi industrialak alokatzen da, Aretxabaletako Basabe poligonoan, interesatuak deitu honako telefono hauek: 79 28 41-79 74 37.

- Eskoriatzan etxebizitza salgai. San Pedro kalea 12 6ezk. Tfnoa: 91 50 80 320 (Madrilekoa) Leandro Mateosegatik galdetu.

- Pisua alokagai dago Bizkaia kalean. Harremanetarako deitu: 79 57 37 telefonora (6etatik aurrera).

- Araba Ibilbidean etxebizitza salgai. Telefonoa: 79 46 24.

- Gasteizen pisua osatzeko pertsona bat behar da. San Viator kalean (Avenidan). Alkilerria 22.000 pta. Interesatuak deitu 79 00 09 telefonora (Maidar).

-

DENETARIK

- Emakume erloju bat galdu da. Erlojuaren atzean Jasone jartzen du. Urriaren 13tik 15era bitartean. Deitu mesedez 79 24 19 telefonora.

- Renault 4-a salgai. Oso egoera onean eta prezio onean. Interesatuok deitu gauez telefono honetara: 79 23 69.

- Betaurreko graduatuak galdu nituen. Urriaren 11ko gauean. Aurkitu dituenak deitu mesedez 79 75 35 telefonora.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.




HITZ GEZIDUNAK

	Galtzarbea		* Izena	Nerbioa	Izana
	Kopetak		Kaukasoko Esne-edari	Filosofa alemaniarra	Euskal mendizerra
	Ekantidea				
	Polisi sigla frantsesak			Toka, ruen * Deitura	
Urteko sasoia ...eman, adierazi	Zafi	Susko arria			
	Adarrak matu	Toka, zuen		Bokal bikoltoa Intseku- mota	Gernik gorako jantzi
Senidea			Jainko egyptiarra	Rubidioa	
Larra			Oro	A	Bi
		Ale- landare Bizk. Omen		R	Röntgen
[Errep.] Txori-mata Gorpuz- atal	Bizk. Nizuke Uhin			K	Bizk. Itsusia
		ikara		A	Artenikoa
		Nahastura trinko			Mardul
Afrika Ibala		Hesi- akala Ainetza gorputza		K	
Dago				U	Joa den urtean
	Emel			U	
	Junlagailua			S	
Baleuka	Sarrera Kanpa, landa		Jezarri Aluminioa	S	
		Lurpeko ugaztuna Berilioa		O	
Eta		Itsas- ugaztuna		A	Lehen eta azkenekoa

HABE

XAVIEROGLIFIKOA



HABE

Nola nahi dugu natura?

* Soluzioak 18. orrialdean.

LEBER

GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosi ondorengo aholkularitza.
- Arlo desberdinak erreperatu-indartu (lenguaia, arrazanamendua...)
- Eskolako edozelango zailtasunetan laguntza.
- Ikasten laguntzeko teknikak.

Ordutegia:

3,30etatik 7,30etara

Basabe poligonoa (Industrialdea)

Tfnoa: 79 56 98 • ARETXABALETA

Liburutegiko txokoa



Gauzez ate joka datozenean

Xabier P. Docampo

Gauzez ate joka datozenean

Xabier P. Docampo

Elkar, 1996

(Branka; 53)


Docampo idazle galziarrak beldurrezko lau ipuinez osaturiko liburu honekin 1995ean Españan argitaratutako haur eta gazte literaturako libururik onenaren saria jaso zuen. Lehen hiru ipuinak galziar nekazari giroan kokatzen dira, idazleak berak txikitan ahoz entzundako beldurrezko ipuinen antzera. Tentsio handiko ipuinak dira eta bukaera gordinak dituztenak.

Beldurrezko istorioak maite dituztenentzat liburu oso aproposa da dudarik gabe hau eta 10 urtetik aurrera irakurtzeko modukoa. Idazle honek "Kanpai hotsen misterioa" liburua ere euskarara itzulita dauka.

Joseba Lopez de Armentia

**Hamabostean behin
Ortzadarrekin**

Ortzadar atsedean taldearekin hamabostean behin, zapatueta, primeran pasatzeko aukera izango dute gazte-txoenek. Hamabosteroko ekintzetan parte hartu ahal izateko, Ortzadarreko lokalean (herriko plaza 1-3. solairua) izena eman beharko da urriaren 27tik 31ra bitartean, arratsaldeko 5etatik 8etara.



Erakusketak

ARGAZKI ERAKUSKETA

“Mugarik gabeko gazteak” argazki erakusketak. Urriaren 17tik 31ra Arrasateko Harresi aretoan.

Ihardunaldiak

**JUBILAZIOARI BURUZKO
IHARDUNALDIK**

Jubilaturik dauden, laister jubilatzen diren pertsonen edo eta beren senitartekoen zuzendutako ihardunaldiak dira. Landuko diren gaiak besteak beste hauek izango dira: **Pentsioen etorkizuna, osasuna, jubilazioaren eragina eguneroko bizitzan...**

Hitzaldiak eskualdeka eman go dira: Bergaran azaroaren 3, 4, 5, 10 eta 11n.

Izenematea dohainekoa da eta Gizartekintzako dohaineko telefonoan egin daiteke: 900 43 43 43 (9etatik ordu 2etara) baita udaletxean ere.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

- Almen 71 49 07
- Aretxagazeta 79 01 05
- Basotxo 77 09 81
- Euskaltegia 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Kiroletxea 79 64 61
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Liburutegia 79 10 00
- Loramendi E.E. 77 09 70
- Ludoteka 79 05 81
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Osasun zentroa 79 74 58
- Otalora 79 79 99
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Postetxea 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Urats Gain 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 79 53 00
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- SOS Deiak 088
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00

**DOMU SANTU
EGUNA**

Azaroaren leian.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABAETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Hemen gara!



HONDA




ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate



MITSUBISHI MOTORS

MONTERO



SPACE WAGON

GALANT



MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 79 20 30
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 79 75 64

